

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

673/2020 Ebazpena, martxoaren 13koa, zeinaren bidez atzeratzen baitira Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortze aldera Arabako Lurralde Historikoan egindako deialdiaren azterketen eguna eta hartzen baitira ezohiko neurriak COVID-19 birusaren izurritea geldiarazteko

Arabako Foru Aldundiak Mugikortasun eta Garraio zuzendariaren azaroaren 22ko 2239/2019 Ebazpenaren bidez onespina eman zien salgaiak edo bidaiariak errepidez garraiatzeko ibilgailu jakin batzuen gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortzeko azterketen 2020ko deialdiari, oinarri arautzaileei eta egutegiari.

Eranskinean azterketetarako sei deialdien datak adierazten ziren, bai salgaien modalitaterako, bai bidaiarien modalitaterako. Azterketa horiek Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UHUN) Gasteizen duen egoitzan ziren egitekoak, 10:00etan, honako egun hauekin:

- Lehenengo deialdia: urtarrilaren 31, ostirala.
- Bigarren deialdia: martxoaren 27a, ostirala.
- Hirugarren deialdia: maiatzaren 29a, ostirala.
- Laugarren deialdia: uztailaren 17a, ostirala.
- Bosgarren deialdia: irailaren 25a, ostirala.
- Seigarren deialdia: azaroaren 27a, ostirala.

Ikusirik SARS Cov2 birusaren pandemia nola ari den hedatzen, eta osasun agintariek azken egunotan koronabirusa prebenitzeko eta geldiarazteko adierazi dituzten gomendioei eta neurriei jarraituz, beharrezkoa ikusten da sine die atzeratzea bigarren deialdia, hasiera batean 2020ko martxoaren 27rako aurreikusia.

Dena den, GGAREN epaimahaiak, erabaki hau gorabehera, eta izena emateko epea martxoaren 13an amaitzen denez, onartuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Arabako Foru Aldundiaren web orrian (araba.eus), oinarrietan ezartzen den bezala. Era berean, bost egun balioduneko epea irekiko du zerrenda horretan ageri ez direnek edo okerreko datuekin ageri direnek, hala badagokio, egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko ditu.

Onartutzat jotako pertsonak probara aurkeztu ahal izango dira, kontuan hartu gabe deialdia noiz egiten den, nahiz eta igarota egon hasierako prestakuntza ikastaroa amaitzen zenetik hasita azterketa egiteko ezarri zen sei hilabeteko gehieneko epea, Errepideko garraiorako ibilgailu jakinen gidarien hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea arautzen dituen uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuak 14. artikuluan xedatua.

Bigarren deialdirako data berria gutxienez bi aste lehenago argitaratuko da Arabako Foru Aldundiaren web orrian, osasun agintariek ezarritako arreta jaso ondoren. Era berean, prestakuntza zentroein horren berri emango zaie, ikasleei jakinaraz diezaieten. Horrez gain, epaimahaiak beste komunikaziorako beste bide alternatibo batzuk ere erabili ahal izango ditu.

Bestalde, Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzak gomendatzen du osasun agintariek hasierako prestakuntza ikastaroak edo etengabeko prestakuntza ikastaroak eteteari buruz agindutakoari jarraitzea.

Horregatik, Foru Gobernu Kontseiluak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duen urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuak aitortzen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Sine die atzeratzea Arabako Lurralde Historikoan Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortzeko egin zen deialdian 2020ko martxoaren 27rako (ostirala) zehazten ziren azterketak. Data berriak Aldundiaren web orrian argitaratuko dira gutxienez bi aste lehenago, osasun agintariak ezarritako arreta neurriak jaso ondoren.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea, eta, beraz, interesatuek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko diote Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a

Mugikortasun eta Garraioaren zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE